

# **2024KO AURREKONTUAK**

## **HERRITARREN PROPOSAMENAK**

### **JASOTZEA**

### **METODOLOGIA**

# Zertarako gonbidatzen da parte hartzera?

1. 2024an lan egiteko, Ermuko herritarrentzat lehentasunezko esparruak zeintzuk diren ezagutu nahi ditugu.
2. Horrez gain, AUZOETAN jarduteko proposamen zehatzak jasoko ditugu.

Udal Gobernuak erabakiko du zeintzuk sartuko diren udal aurrekontuan, proposamenen bideragarritasuna teknikoki aztertu ondoren.

# Nork parte har dezake?

Hurrengo baldintzak betetzen dituen edozein pertsonak:

- Ermuan erroldatuta egotea
- 18 urte izatea

Udalaren webgunearen bidez parte hartzen duten pertsonen izen-abizenak eta NANA adieraztea eskatuko zaie.

# Nola parte hartu?

- Etxe guztietan postontzietan jarriko dugun paperezko galdetegia betez.
- Nahiago baduzu, udalaren webguneko online galdetegia betez.

Galdetegiak aurkezteko epea: urriaren 25etik 31ra.

# Nola parte hartu?

Paperezko galdetegiak honako leku hauetan aurkez daitezke:

- Auzoetan jarritako hautestontziak
- Abiapuntun (astelehenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara)

# Zer egingo da proposamenekin?

1. Proposamenak teknikoki baloratuko dira eta udal gobernuak erabakiko du aurrekontuan sartuko dituen ala ez.
2. Udal webgunean argitaratuko dira emaitzak.